


## TXITXARROA

HILEROKO PREZIOEN GARAPENA




Prezioak (€/kg)


	Jatorri	Merkatu	Helmuga
Azken hilabetea *	1,15	5,20	6,39
Aurreko hilabetea *	0,89	3,94	6,38
(1) Aurtengo kanpainaren *	1,09	4,14	6,28
(2) Aurreko kanpainaren *	0,99	4,35	6,09
<b>Bariazioa (1)/(2)</b>	<b>10%</b>	<b>-5%</b>	<b>3%</b>

\* Bataz besteko prezioa

Helmugan, azken 5 urtetako urteko batz besteko kotizazioak kiloko 6€ baino altuagoak izan dira. 2012. urtean 2.397 tona txitxarro arrantzatu dira, iaz baino %39 gutxiago.



URTETIK URTERAKO PREZIOEN ALDAKETA




Abenduan 32,8 tona txitxarro porturatu dira Euskadiko kofradia ezberdinetan, azaroan baino %52 gutxiago. Kotizazioa egonkor mantendu da helmugan, jatorrian eta merkan aldiz nabarmen egin du gora, %29 eta %32 hurrenez hurren. Azken iguera honekin, merkako abenduko prezioa urteko altuena da.

Abenduko urte arteko bariazioa 39, 0 eta 8 puntu portzentajeko alde ezarri du jatorri, merka eta helmugan hurrenez hurren.



## TXITXARROA

## TXITXARROAREN BALIO KATEA



**Txitxarroa**  
*Trachurus trachurus*

**Harrapaketa metodoa edo arrantza erremintak:** Ohikoenak ingurasareak, hondoko arraste-sareak eta tresmailak dira. Amu hariz ere arrantza daiteke.

**Tamaina:**

- Gehienezkoa: 50-60 cm.
- Ohikoa: 15-30 cm.
- Gutxienezkoa 15 cm Kantauri ipar-ekialde eta Kadizko Golkoarentzat, 12 cm mediterraneoarentzat.

**Ezaugarri nabarmenenak:**

- Oro har, osorik eta freskoa komertzializatzen da, nahiz eta ale txikienak kontserba industriara bideratzen diren.
- Arrain urdinen taldekoa da, ezaguna den arraina izanik nahiko eskuragarria da.
- Urte osoan merkatuan aurki daiteke, nahiz eta kantitaterik handienak ekaina eta urria bitartean jasotzen diren.
- Kantauriko itsasoko zonaldean, zuria eta beltza ezberdintzen dira azalaren kolorearen arabera. Zuria zertxobait estimatuagoa da.

Informazio iturria: VV.AA. (2008). *Pescados y mariscos. Guía práctica*. Madrid: Mercasa.

**Habitata:** Itsas zabalean, itsas hondo bigun eta hondartsuetan bizi den ohitura pelagikoko espeziea da. Arrain sarda handiak edota sarda migratorioak eratzen dituzte. 100 eta 200 metroko sakoneran eta batzuetan 600m-ra ere bizi da, azaleko uren eta mesopelagiko behe aldeko muga tartean, nahi zeta udan kosta inguruan ager daitekeen, baita gainazalera azaleratu ere. Taldekoa, igerilari ona, azkarra eta jatuna. Arrain klase asko, krustazeo eta txibia txikiak janez elikatzen da. Gauean argiak erakartzen ditu.

**Deskribapena:** arrain taldekoa eta igerilari ona. Gorputz estiliztua du eta pedunkulu estu baten formakoa. Bular luzanga du. Burutik isatsera, lerro oso markatua du, arku formakoa eta bihurria. Ezkutu formako hezur-ezkatak ditu. Gris ilunetik beltzerako koloreak hartzen ditu buruan, eta gris berdexka edo urdin-zilar kolorea aldeetan. Sabelaldean ia zuria da, eta belarriaren ertzean orban iluna du. Begi handiak ditu, eta ondo garatutako betazal adiposo ikusgaiak. Muturra puntaduna da. Masailezurraren goialdea zabalagoa da eta begiaren aurreko muturreraino doa. Masailezurraren behealdea, aldiz, irtena da. Aho handia dauka, eta masailezurrean ondo lerrokatutako hortz txikiak ditu. Tamaina ezberdinetako bi bizkar-hegats ditu: batak 8 hezur ditu, eta bigarrenak hezur 1 eta 29-23 erradio bigun. Bi bentral dauzka.